

BALOREZKO PROPOSAMENA

Guk sortutako Eskudrug eskumuturrekoaren balioen artean ugari dira gainontzeko antzeko produktuetatik bereizten gaituztenak:

Balioetako bat berritasuna izango litzateke; produktuaren diseinua eta erabilera berrikuntza teknologikoak izan ez arren, gehitu dizkiogun praktikotasuna, zerbitzu eta prestazioak nobedade bihurtuko dute produktua. Gu, festan ateratzean, horrelako objektu bat edukitzea oso praktikoa eta erabilerraza dela uste dugu, izan ere, inoiz ez dakizu noiz gertatuko zaizun alkohola eta drogarekin arazorik eta horrelako gauza bat eskuetan edukitzeak segurtasuna eta konfiantza ematen duela uste dugu.

Gure produktuaren beste baloretako bat lana erraztearena izango litzateke, kasu honetan, gure bezeroari drogaren aurrean izan daitezken arrisku edo eraso baten aurrean babesa emanez eta unean bertan Ertzainei biktimaren ubikazioa bidaliz.

Ondoren, prestazioak izango genituzke, gure produktua ahalik eta erabilgarriena izango da gure bezeroei ahalik eta segurtasun handiena emateko:

- Gure produktuak bi zati ditu. Lehenak, droga analisi bat egiteko aurrera emango digu eta bigarrenak, berriz, behar denean Ertzainei deitzeko aukera emango digu.

Eskumuturrekoaren lehen zatia, laborategiko zientzilaria batzuekin hitz eginda egongo da, izan ere, alkohola eskumuturraren zati horretan jartzean, kolorez aldatuko da drogarik bota badiote eta hala ez bada, berdin geratuko da. Horretarako, zientzilariekin hitz egin eta pultseraren zati horretan jarri behar dugun kimikoa eskura jarriko digute, guretzat errezagoa izateko, bezeroei erreztasuna emanez.

Bigarren zatia, berriz, informatikarekin du eragin zuzena. Gure eskumuturrekoak, lehen esan bezala, botoi bat izango du bezeroa arriskuan sentitzen bada Ertzainekin zuzenean kontaktuan jartzeko.

- Beste aldetik, familikoengan ere eregin zuzena izan dezake, izan ere, gurasoak beraien seme-alabak pultsera honekin ateratzen direla ikustean, lasaiago egongo direla uste dugu. Guraso guztiak urduri jartzen dire beren seme-alabak festan ateratzen diren aldiro eta beti deika egon ohi dira ea zerbait gertatu zain galdezka, baina gure produktuarekin, iada ez dira hain urduri egongo.
- Amaitzeko, beste enpresa deberdinekin lan egitean, adibidez, eskumuturrekoa sortzen dutenekin edota ertzainekin, beraiei ere lagunduko diegu, hots, lanpostuak sortuko ditugu beraiek lan egin dezaten eta beraien enpresaren izena ezagutzera emango dugu, jendeak hura ezagutzeko eta beraiengan konfiantza sortuz.

Beraz, Eskudrug, droga ekiditeko erabili daiteken eskumuturreko praktikoa da. Eskudrug antidroga eskumuturrekoa pertsonalizazioari dagokionez, produktu hau, norberarena da,



hau da, bezero bakoitzaren ingurura egokituko da eta bezero bakoitzak aukeratu ahal izango du honako honen diseinua eskaintzen zaizkion modelo ezberdinak egongo baitira.